# Barakaldoko herripapera*

ehbildu Barakaldo

12. zenbakia | 2023ko martxoa

www.barakaldo.ehbildu.eus @ehbildubaraka EH Bildu Barakaldo @ehbildubaraka barakaldo@ehbildu.eus 679 46 97 88

Udal informazio aldizkaria | Revista de información municipal




**MARÍA SOLAR ROMERO,**
CANDIDATA DE EH BILDU A LA ALCALDÍA DE BARAKALDO

## "Barakaldo necesita personas haciendo política y no políticos profesionales al servicio de otros intereses"

**¿Qué balance haces de la legislatura?**
Creo que ha sido una legislatura desaprovechada. **Amaia del Campo, al llegar a la alcaldía, prometió levantar alfombras, grandes cambios... Pero en realidad, la gestión económica, el desarrollo urbanístico, la falta de políticas de empleo, la desigualdad social o la brecha entre barrios, sigue igual.** Después de elecciones, sólo un mes tardaron PNV y PSE en olvidar todas sus peleas para firmar un pacto de intereses y repartirse el pastel. Y durante toda la legislatura han demostrado que no hay un proyecto común para Barakaldo, sino un mero reparto de áreas de gobierno, de sueldos y de despachos. Y mientras, la realidad nos marca hoy unos indicadores sociales muy preocupantes. **Económicamente, en términos de renta per cápita, tasas de pobreza o calidad medioambiental y urbanística, Barakaldo y Margen Izquierda estamos a la cola del país.**

**María, repites como candidata a la alcaldía. ¿Cómo afrontas esta nueva candidatura?**
Con el mismo compromiso y con más ilusión si cabe. Han sido cuatro años de experiencia institucional que me han proporcionado una visión más concreta de las necesidades de la ciudadanía. También he conocido los entresijos de la política institucional y me he dado cuenta de que por desgracia, en este mundillo no siempre gana la ciudadanía. Sin embargo, vengo del mundo de la educación no formal, donde trabajamos con y para la gente, con el objetivo de mejorar sus vidas. Y por lo mismo **estamos en política en EH Bildu, donde militamos personas honestas, que llevamos décadas en los barrios, en las asociaciones vecinales, sindicales... Y personas comprometidas con el objetivo de mejorar Barakaldo desde lo cercano.** Y eso es lo que necesita nuestro pueblo: personas haciendo política y no políticas profesionales al servicio de otros intereses.

> **"EAJren eta PSEren hamarkadetako kudeaketaren aurrean, EH Bildu da alternatiba bakarra Barakaldo jasangarria justuagoa, eta feministagoa lortzeko**

> **"Hauteskundeen hurrengo egunetik aurrera, aliantzak bilatzen saiatuko gara, politika ezkertzaleak, parte-hartzaileak eta sozialak ezartzeko**

**¿Qué ofrece EH Bildu para cambiar Barakaldo?**
Hay que configurar **una alternativa a este modelo de gestión** que han representado PNV y PSE. Cambiar el prisma poniendo en el centro las necesidades de las personas. Así, por ejemplo, necesitamos atraer industria moderna y tecnológica frente a la venta de terrenos a empresas que generan empleos precarios. Igualmente, son necesarios servicios públicos municipales de calidad; más parque de vivienda pública... También políticas públicas feministas efectivas, y dejar de lado el actual postureo morado del gobierno municipal. Y garantizar los derechos de las y los euskaldunes en su trato con la administración municipal, entre otras...

**¿Con qué objetivo llega EH Bildu a las elecciones municipales?**
Vamos a fortalecer nuestro proyecto y consolidarnos como la única alternativa al tandem PNV y PSE. Tenemos proyecto, plan y visión para un Barakaldo mejor, y queremos seguir sumando ideas y propuestas para aprovechar todo el inmenso potencial que Barakaldo tiene. La gente me transmite a diario que estamos trabajando bien, y estoy convencida que vamos a crecer. Y **a partir del día siguiente de las elecciones, intentaremos buscar alianzas para implementar políticas de izquierda, participativas y sociales.**

ehbildu




# Euskararen aurkako azken eraso judiziala irmoki salatu genuen

Urtarrilaren hasieran, EAEko Auzitegi Nagusiak Barakaldoko Udalak azpikontratatutako zerbitzuetan euskararen ezagutza eskatzearen kontra ebatzi zuen, herritarrek euskarazko zerbitzua jasotzea oztopatuz. Euskararen aurkako erasoaldi berri batean, botere judiziala demokrazia beraren gainetik kokatu zen beste behin.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak CCOO sindikatuaren helegitea onartu izanak **euskararen aurkako eraso berria bat izan da eta hau irmoki salatu genuen EH Bildutik**. Era berean, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketa salatzeko, **Udalak Barakaldoko herritarren hizkuntz eskubideak defendatzea eskatzen zuen Adierazpen instituzional bat bultzatu genuen**. Adierazpen instituzional horretan, halaber, Udalak Sasiburu euskara elkarteak antolatutako protestekin bat egin zezala lortu genuen. Administrazio publiko osoak lanpostu publikoen hizkuntza-eskakizunak ezartzeko duen legezko zilegitasuna eta eskumena aitortzen ziren bertan, eta Udal-autonomian egindako esku-hartze judizial berri hura ere salatzen zuen adierazpen instituzionalak.

### Pribatizazio politiken ondorio

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu **EAJren eta PSEren Barakaldoko gobernuek zerbitzu publikoak pribatizatzeko egin duten politikaren beste ondorio bat dela gertatutakoa**. Era berean, azpimarratu nahi dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela euskara arautzeko Udal Ordenantza bat martxan jartzea, udalerriko euskaldunon eskubide guztiak errespetatzen direla bermatzeko.



# EH Bildu presenta una iniciativa en el Parlamento para buscar fórmulas que mantengan el servicio de gasolino

Albiste hau euskaraz irakur dezakezu QR kode hau eskaneatuz

EH Bildu ha registrado en el Parlamento Vasco una Propuesta No de Ley para que **Gobierno Vasco se implique y no deje desaparecer el servicio de transporte fluvial entre Erandio y Barakaldo**. Concretamente, la propuesta presentada solicita al Gobierno Vasco **crear, junto con los Ayuntamientos de Barakaldo y Erandio y la Diputación de Bizkaia, un grupo de trabajo para adoptar medidas de apoyo al Gasolino que garanticen su supervivencia**. Entre esas medidas, se enumeran subvenciones, la interoperabilidad con otros servicios de transporte y la creación de actuaciones complementarias con el servicio principal, para permitir fuentes de ingresos estables que compensen el déficit estructural.

EH Bildu propone concretamente que Gobierno Vasco y Diputación contraten anualmente un número de servicios suficientes del gasolino para hacer itinerarios culturales y turísticos por la ría para complementar el servicio de transporte. Así se podría garantizar la sostenibilidad del servicio, y las instituciones podrían poner en marcha un programa de divulgación de rutas por la ría para ofrecer a estudiantes, turistas o cualquier persona interesada en poder realizar un viaje guiado por los hitos de la arquitectura e historia de la ría. Así mismo, la propuesta también insta al Gobierno a realizar los trámites necesarios para que este programa pueda recibir fondos europeos.

El Gasolino es un sistema de transporte necesario, que a pesar de ser deficitario, todavía **da servicio a un gran número de personas, y que forma parte, además, del patrimonio histórico, industrial, cultural y sentimental del entorno de la ría**.

# MARTXOAREN 8a. ZAINTZEN DUEN HERRIA HELBURU

Pasa den martxoaren 8an, **zaintza sistema publikoaren garrantzia mahai-gaineratzeko ekimenak burutu genituen kalean eta erakundeetan**. *"Denon bizitzak erdigunean"* leloarekin, Euskal Herriko mugimendu feministak indarrak batu nahi izan ditu zaintzaren sektorean lan baldintzak hobetzeko borrokan ari direnekin eta zerbitzu publikoen kalitatea defendatzen duten kolektiboekin. Barakaldon, horren hainbat adibide baditugu: adibidez, Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileak, lan-hobekuntzak eta bost urte izoztuta daramatzan hitzarmen kolektibo berri bat sinatzea aldarrikatzen dutenak. Gurutzetako ospitaleko garbitzaileak ere azken egunetan beren lan-eskubideak defendatzeko eta hitzarmen duina aldarrikatzeko mobilizatu dira.

**Ezinbestekoa da zaintzen sistema publikorako norabidea markatzea**. Konpromiso horrekin bat datozen ekintzak, baliabideak eta aurrekontuak eskatu behar ditugu: kontua **ez da soilik murrizketarik ez egitea, baizik eta, kasu askotan, aurrekontu horien orientazioa eta ikuspegia iraultzea, eraginkortasunez gizarte-kolektibo askoren premia larriei erantzuteko**, emakume askok bizi duten desberdintasun-arrakalari, osasuna babesteko eta zaintza baldintza duinetan emateko eta jasotzeko premiei, etab.

Horrez gain, mugimendu feministak antolatutako mobilizazioak babestu genituen.

# Los intereses partidistas de PNV y PSE condenan a Barakaldo al desgobierno




**2019-2023: UNA LEGISLATURA PERDIDA**

**SEPTIEMBRE 2019:** PACTO PNV-PSE

- PNV y PSE firman acuerdo de gobierno argumentando "responsabilidad y la necesidad de un gobierno fuerte".
- Reparten áreas, concejalías, recursos económicos y sueldos.

**2019 - 2020:** POLÍTICA DE RODILLO

- Rodillo a propuestas de la oposición y agentes locales. Ausencia de debate democrático.

**2020.** PANDEMIA

- Gestión tardía y no participada: Siempre detrás de las iniciativas vecinales y oposiición, sin aprovechar sus aportaciones.

**2022-2023:** DESGOBIERNO Y PARTIDISMO

- Política de propaganda.
- Entrado ya marzo, no hay todavía presupuesto municipal aprobado para 2023.

EH Bildu ha mantenido siempre una lectura clara sobre los pactos de gobierno que se han dado en el Ayuntamiento de Barakaldo. Lo decíamos antes de las elecciones de 2019, y durante la legislatura se ha demostrado: PNV y PSE, mantienen un idilio de conveniencia con intereses particulares y partidistas. **El acuerdo entre jeltzales y socialistas,** cerrado en despachos fuera de Barakaldo, **reporta beneficios a ámbos en términos de recursos económicos y representatividad. Pero es un problema para la ciudadanía, ya que supone un Gobierno local debil, incoherente y sin iniciativas**.

Durante **los dos primeros años de esta legislatura, el acuerdo entre PNV y PSE supuso un "rodillo"**, que limitó el necesario juego y debate democrático en una institución. **Lo que PNV y PSE acordaban, pasaba por encima de las propuestas y labor de oposición, agentes locales y ciudadanía**. A pesar de presentarse siempre como opciones antagónicas en campaña, nacionalistas y socialistas han compartido y comparten formas de hacer en este Ayuntamiento. **Comparten la herencia de décadas de gestión oscurantista. Representan modelos de gestión y gobernanza caducos y que no responden a las necesidades de Barakaldo**.

Esa unión cosmética hizo aguas desde el primer día. **Desde el propio gobierno se ha reconocido publicamente que hay "dos equipos de gobierno"...** Ha sido una legislatura de propaganda, con codazos entre los dos partidos buscando su foto, su protagonismo... E incertidumbre para la ciudadanía, que ante una misma necesidad, a menudo, desde el gobierno municipal encontraba dos voces; dos respuestas.

Y ahora, **a puertas de elecciones, esta situación nos trae un desgobierno absoluto.** La pelea por un puñado de votos ha traído situaciones dantescas: **filtraciones interesadas en medios de comunicación, mensajes con reproches y discusiones entre los socios en los propios plenos, codazos constantes para "salir en la foto", etc... Se vuelve a repetir el guión** de esta película con final previsible. **Marcar perfil propio en estos meses para volver a coincidir tras las elecciones**, según la aritmética electoral.

Debemos decirlo con rotundidad: **la gestión municipal en Barakaldo está siendo utilizada para la pose partidista de jeltzales y socialistas. Hemos perdido una legislatura para diseñar y construir futuro.** Porque detrás de la propaganda, está la realidad, que en Barakaldo es tozuda. Porque la propaganda y el cemento no puede ocultar las necesidades vecinales. Y la realidad social sigue siendo una asignatura pendiente; un reto al que estos dos equipos de gobierno en uno han renunciado.

### EAJ-PSE ITUNA

**Komenentziazko akordioa da. Bi alderdiek "bi gobernu talde bakarrean" aitortzen dituzte. Horren ondorioz, udal gobernu ahula eta inkoherentea.**

### GOBERNU EZA ETA ALDERDIKERIA

**Filtrazio interesatuak trapu zikinak aireratzeko, bazkideen arteko liskarrak... Eta, bitartean, erantzun gabeko premia ugari.**

### AURREKONTUAK

**Martxoan sartuta, ez dugu 2023rako aurrekonturik, "Udalkutxaren diru-sarreren kalkuluagatik eta Ukrainako gerragatik"... Baina inguruko gainerako udalerriek garaiz eta modu egokian onartu zituzten aurrekontuak.**



**Iker Casanova.**
*Bizkaiko Ahaldun Nagusigaia*

# Ezkerraldea 2030: Eskualderako bultzada berri bat

Ezkerraldea, hiriburuen atzetik, Euskal Herriko eskualderik jendetsuena da. Ezkerraldean sortu zen euskal industria eta hainbat hamarkadatan **herrialdeko ekonomiaren motorra** izan zen. Hala ere, 80ko eta 90eko hamarkadetan ezarritako desindustrializazio-prozesuaren ondorioz, Ezkerraldea lokomotora ekonomikoa izatetik azken bagoia izatera igaro zen. Gaur egun, adierazle okerrenak ditugu langabeziari, pobreziari eta prekarietateari dagokienez.

EH Bilduk urteak daramatza eremu hori bultzatzeko politikak indartzeko eskatzen. Baina **Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak beste alde batera begira jarraitzen dute**, gure eskualdeko benetako beharretatik oso urrun dauden plan kosmetikoak proposatuz. Bitartean, praktikan, Ezkerraldea **merkataritza-gune eta biltegi logistikoen** lurralde bihurtzeko proiektuan sakontzen jarraitzen dute.

Hala ere, ez dugu etsiko. Ezkerraldea bultzatzeko apustu politiko handia aldarrikatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, azken hilabeteetan ***Ezkerraldea Gara!*** prozesua gauzatu dugu gure eskualdean Plan Estrategiko bat egiteko. Lehenengo fasean, ehundik gora eragile sozial eta ekonomikorekin hitz egin genuen, haien analisiak eta proposamenak entzuteko. Bigarren etapa batean, jasotako ekarpenen inguruan lan egin zuen EH Bilduk, dokumentu batean artikulatzeko. Horren emaitza **Ezkerraldea 2030 Plan Estrategikoa da**. Plan horretan 121 neurri proposatzen dira Ezkerraldea suspertzeko, **Ekonomia, Lurraldea eta Pertsonak** hiru arloetan egituratuta.

Proposamen ekonomikoaren ardatza **5.0 industria**ren aldeko apustua da: Teknologikoa, Soziala eta Jasangarria. Berrindustrializazioarekin batera, **hirigintza-hobekuntzarako neurriak** eta **mugikortasun-eredu berri**, moderno eta jasangarri bat proposatzen ditugu. Azkenik, abangoardiako neurriak proposatzen dira **gizarte-politiken esparruan**, kultura, osasuna, hezkuntza eta gainerako zerbitzu publikoak zaintzeko eta hobetzeko sistema publiko-komunitarioa eraikitzeko.

Ezkerraldea oso garrantzitsua izan zen euskal garapen ekonomikorako. Orain, industriarik gabe eta arazo larriekin, Ezkerraldeak lehentasunez tratatzea merezi du. Ezin dugu etsi; **Ezkerraldeak gehiago merezi du**. Ezkerraldea 2030 Plan Estrategikoa gure ekarpenetako bat da Ezkerraldeak merezi duen lekura itzultzeko borrokan.

Plan Estratégico
# Ezkerraldea 2030
Plan Estrategikoa

**121 ekimen** Ezkerraldea justu eta oparoagoa lortzeko bidean
**121 iniciativas** para una Margen Izquierda más próspera y justa.

### 5.0 industria adimendua
### Industria inteligente 5.0

- Industria aurreratuan, sozialean eta jasangarrian espezializatzea
- Industria-lurzorua gaitzea, inbertsioak sustatzea, prestakuntza hobetzea
- Bizkaia-Ibaizabal Parke Teknologikoa, Punta Zorrotza, Zorrotzaurre eta Burtzeña lotuz

- Especialización en Industria avanzada, social y sostenible
- Habilitación de suelo industrial, promoción de Inversiones, mejora de la Formación
- Parque Tecnológico “Bizkaia-Ibaizabal” en Burtzeña, Punta-Zorrotza y Zorrotzaurre

### Bidezko Trantsizio Energetikoa
### Transición energética justa

- Energia berriztagarrien eskualdeko agentzia
- Bidezko trantsizio energetikorako hitzarmena

- Agencia comarcal de energías renovables
- Convenio para Transición Energética justa

### Kultura eta turismo industriala
### Cultura y turismo industrial

- Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa eta Zentroa
- “Mendebaldea” helmuga turistikoa sortzea,turismo industrialaren erreferente gisa

- Museo y Centro Vasco de la Técnica y la Industria
- Creación del destino turístico “Mendebaldea” como referente del turismo industrial

### Giza-eskalako hirigintza
### Urbanismo a escala humana

- Etxebizitzak birgaitzeko plan integralak
- Itsasadarraren ardatza eta ibaiertzak berreskuratzea

- Planes integrales de rehabilitación de viviendas
- Recuperación del eje de la ría y riberas de los ríos

### Mugikortasun paradigma berria
### Nuevo paradigma de movilidad

- Aldiriko lineak modernizatzea eta C1 linea lurperatzea
- Garraio publikoa erabat indartzea
- Bidegorri-sare osoa eta funtzionala
- Karga elektrikoko puntuen sarea

- Modernización de líneas de cercanías y soterramiento de línea C1
- Refuerzo integral del transporte público
- Red de bidegorris completa y funcional
- Red de puntos de carga eléctrica

### Zainketak eta osasuna
### Cuidados y salud

- Zainketen ekosistema berria: doakoa, publikoa eta plaza gehiagorekin
- Osasuna komunitatetik

- Nuevo ecosistema de cuidados: gratuito, público y con más plazas
- Salud desde lo comunitario

### Kultura eta euskara
### Cultura y euskara

- Kultur Ekintzaren Plan Estrategikoa 2023-2033
- Euskara erabiltzen eta ikasten laguntzea

- Plan Estratégico de acción cultural 2023-2033
- Apoyo al uso y aprendizaje del euskara

### Hezkuntza
### Educación

- Pacto contra la segregación escolar

- Eskola-bereizketaren aurkako ituna

### eta beste hainbat proposamen
### y otras muchas propuestas

- Saltoki txikiei laguntzea, ekosistemak berreskuratzea, alokairuko etxebizitzak, politika feministak…

- Apoyo pequeño comercio, recuperación ecosiste-mas, vivienda en alquiler, políticas feministas…

Deskargatu dokumentu osoa euskaraz

Descárgate el documento completo en castellano

Ezkerraldea gara.

ehbildu